




# Javier Nieto

## AMETSEN LIBURUA











Marca *Izargain* nº: 2.425.909/Ar-2016-28


Xabier
NIETO
BARANDA
664
ZU AL ZINAN...???
en liburua
the book of dreams
ASTERO



- - - - - Ez dakizula zer gertatu zitzaidan aurreko batean...??

Ba... mendira (eo...) jun nintzan, gure herriko toki zoragarri horietako batetara. Bakardadea, zuhaitzak, itzalak, zelai-albapak, isiltasuna; txori, zintzarri, erreketxoen doinuak... enfin! Badakizu nolakoa, ez?

Ba, hori. Bakar bakarrik nengoen, eta ziur inor ez zitzaidala gerturatuko.

Honelaxe, ba, topatu nuen zuhaitz enbor izugarri bat, inguruan belar goxo-goxoa zuena. Eguzkipean baino itzalpean, itzaletan baino eguzkipean, ez bero ez hotz, hotz baino bero... eta molestatzen zuen guztia kendu... xuabe-xuabe, baina azkar, presaka baina ematen zidan askatasuna pixkanaka dastatuz, eta, azkenean, biluzik geratu nintzen, lurrak ematen duen energia nola barneratzen zitzaidan sentituz, haizea poro guztietatik sartu eta besteetatik nola ateratzen zitzaidan bizituz. Eguzki izpiak gorputzaren azalarengan eragindako berotasuna gozatuz.

Baladatxo bat pasatu nuen gorputzaren zati bakoitza lurrarekin kontaktuan jarriz, haizeak fereka zezan utziz, eguzki izpiek laztan zezaten saiatuz.

Eta azkenean zabal-zabal etzanda geratu nintzen zerura begira, zuhaitzen hosto artetik zeru urdin zatitxoei begira, isiltasuna eta natura entzunez, lasai-lasai

Honela nengoela, bapatean, ez dakit nola, nondik eta ezer, baina bapatean, zerbait sumatu nuen oinetan. Ez dakit zer zen baina xuabe-xuabe laztantzen zizkidan oin azpiak, mugitu arazten duten horietako kilimak ere egin gabe.

Eta gorantz zetozten laztanak, pixkanaka-pixkanaka, baina gelditu gabe, azalaren osotasuna igurtziz, laztanduz, gozatuz. Hanka azpitatik lepora, burura, ileen arteko tarte guzti-guztiak, kopeta, bekain artetik sudurrera, berau dimurt araziz, masailak, ezpainak bilatu, aurkitu nahian.

Hankako behatz lodiaren puntatik buruko azken ilea bitarteko laztan oso-oso handi bat zen, gorputz osoan zehareko zirarra LUZEEEE... bat eraginez.

Begiak ireki eta... ez zegoen inor... Baina...

ZU AL ZINAN...???

MUXXXUTXOAK...!!!



Marca *Izargain* nº: 2.425.909/Ar-2016-28




# Jone Lozano









## ametsen liburua








Marca *Izargain* nº: 2.425.909/Ar-2016-28



Jone
**LOZANO MIRANDA**

2011-2015 espetxean
Fleury Mérogis, Lyon, Soto del Real

576

2014ko abenduaren 28an,
Lyon-Corbasen.

# KUKU!!

Muxu goxo bat! eta goxo-goxo bat kideei!!

Banator! Beti bezala: berandu eta gaizki, baina azkenean... iritsi!! Jeje!! Inozenteen eguna aukeratu dut nire ibilbide kartzelarioari ohore egiteko (denbora honetan nire gutuna itxoin dutenek ulertuko dute! Jeje!!).

Enfin... zer esan?! Nondik hasi?! Gaur elurra ari du. Eta egunkariz isolatu dudan leiho honetatik begiratu eta nire etxeko leihotik ikus nitzaken paraje berberak ikus ditzaket. Dena zuritua; dena zabala, handia eta ederra! Askatasuna usaindu, entzun, laztandu, senti... dezaket!

3 urte eta 10 hilabete, eta leihoko barroteak ez ikusten ikasi dut (balitteke ordea hainbeste ikusi ostean nire parte izatea!? Desdeluego inoiz etxerik badut ez da barroterik egongo! Nahiago lapurrak barroteak baino! Gainera niri zer lapurtuko didate!? ). Baita, harrigarria izan badaiteke ere, ziega arrotza gotorleku bilakatzen, eta errepresioaren aurrean nik neuk atea ixten!

Nik! Ez mixerable haiek!.

Atea itxi eta berriro leihoa zabaldu: erratzaren gainean ihes egiteko; zuhaitz bat besarkatzeko; etxekoen konpainiaz gozatzeko; Lagunetaz eta lagunekin ikasteko, erabat biluzik maitalearekin larrua jotzeko; eraldatzeko; landatzeko; iraultzeko; loratzeko; eztikitzeko...

Etzi amaitzen da (ofizialki) niri ezarritako mendekua. Ez naiz aske izango ordea! Eta berriro ere ateko giltza, erratza, ametsak eta oroimena kendu nahiko dizkidate. Baina berriro ere gogor eutsiko diet, zeren eta Sarrionandiak dioen bezala "oroimena gerela akordatzen naiz, oroimena ala ia ezer ez".

maitasunez...
Jone.

**BORROKAK ASKATZEN GAITU!!**

**GORA EUSKAL HERRI ASKE, SOZIALISTA ETA FEMINISTA!!**











Marca *Izargain* nº: 2.425.909/Ar-2016-28



2014ko abenduaren 28an,
Lyon-Corbasen.

# KUKU!!




Banator! Beti bezala: berandu eta gaizki, baina azkenean... iritsi!! Jeje!! Inozenteen eguna aukeratu dut nire ibilbide kartzelarioari ohore egiteko (denbora honetan nire gutuna itxoin dutenek ulertuko dute! Jeje!!).

Tira... zer esan?! Nondik hasi?! Gaur elurra ari du. Eta egunkariz isolatu dudan leiho honetatik begiratu eta nire etxeko leihotik ikus nitzaken paraje berberak ikus ditzaket. Dena zuritua; dena zabala, handia eta ederra! Askatasuna usaindu, entzun, laztandu, senti... dezaket!.

3 urte eta 10 hilabete, eta leihoko barroteak ez ikusten ikasi dut (balitеke ordea hainbeste ikusi ostean nire parte izatea!? Desdeluego inoiz etxerik badut ez dut barroterik egongo! Nahiago lapurrak barroteak baino! Gainera niri zer lapurtuko didate!? ). Baita, harrigarria izan badaiteke ere, ziega arrotza gotorleku bilakatzen, eta errepresioaren aurrean nik neuk atea ixten!

Nik! Ez mixerable horiek!.

Atea itxi eta berriro leihoa zabaldu: erratzaren gainean ihes egiteko; zuhaitz bat besarkatzeko; etxekoen konpainiaz gozatzeko; lagunetaz eta lagunekin ikasteko, erabat biluzik maitalearekin larrua jotzeko; eraldatzeko; landatzeko; iraultzeko; loratzeko; ezikitzeko...

Ezta amaitzen da (ofizialki) niri ezarritako mendekua. Ez naiz aske izango ordea! Eta berriro ere ateko giltza, erratza, amets ak eta oroimena kendu nahiko dizkidate. Baina berriro ere gogor eutsiko diet, zeren eta Sarrionandiak dioen bezala "oroimena garela akordatzen naiz, oroimena ala ia ezer ez".

maitasunez...
Jone.

**BORROKAK ASKATZEN GAITU!!**

**GORA EUSKAL HERRI ASKE, SOZIALISTA ETA FEMINISTA!!**



Marca *Izargain* nº: 2.425.909/Ar-2016-28